

EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2010eko iraila


Euskal AEko industri jarduera %2,1 hazi zen 2010eko irailean

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2010eko abuztuarekin alderatuta %2,5 jaitsi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2010eko irailean, lan-egutegiko termino homogeneoetan %2,1 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko hil beraren aldean. Urtaoren eragina zuzenduta, %2,5 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2010eko abuztuarekin alderatuta.

Gráfico 1. grafikoa. Euskal AEko industri produkzioaren urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhileka

% hazkundera



Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2010eko iraileko indizearen bilakaerak den-denen igoerak erakusten ditu, 2009koaren aldean. Energia %2,2 igo da, Ekipo-ondasunak %0,2, Bitarteko ondasunak %5,2; Kontsumo-ondasunak %1,7. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,8 igo dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %8,3 jaitsi.

2010eko irailean, aurreko hilaren aldean, Bitarteko ondasunak %1,3 gehitu dira. Gainerako sektoreetan negatiboa da bilakaera: Energia %7,5 jaitsi da; Ekipo-ondasunak %2,8 jaitsi dira abuztuaren aldean, eta Kontsumo-ondasunak %2,2, batez ere Kontsumo-ondasun iraunkorrengatik (%-6,0), Kontsumo-ondasun iraunkorrak gutxiago (%-1,2) jaitsi baitira.

2010eko irailean hazkunderik handienak izandako sektoreak, aurreko urteko hil beraren aldean, Industria kimikoa (%12,6) eta Elikaduraren industria (%6,5) izan dira.

1. taula. Industri produkzioaren indizean urte batetik bestera hazkunde handienak eta txikienak izan dituzten sektoreak. A-31 sektorea. Behin-behineko datuak

Igoera handienak izan dituzten sektoreak		Beherapen handienak izan dituzten sektoreak	
Iraila10 / Iraila09	%	Iraila10 / Iraila09	%
Kautxua eta plastikoa	12,6	Larruaren eta oinetakoen industria	-17,9
Petrolioaren fintzea	6,5	Metalezko eta ez-metalezko meak	-13,8
Garraio-materiala	6,0	Material elektrikoa	-6,7
Industria kimikoa	5,2	Zurgintza	-2,5

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Urte arteko tasetan Metalezko eta Beste manufakturek (%-17,9) eta Ez-metalezko industriak (%-13,8) izan dituzte erorketarik handienak.

Iraileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%0,3), Bizkaian (%0,9) eta Gipuzkoan (%4,5). Hil arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da Araban (%-7,8) eta Bizkaian (%-2,0), 2010eko abuztuaren aldean. Gipuzkoan %0,1 hazi da.

2. taula. 2010eko Iraila. Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10Ira/09Ira	At/At-1 (1)	10Ira/10Abu	10Abu/10Uzt
Indize orokorra: Euskal AE	2,1	2,2	-2,5	0,6
Araba	0,3	10,5	-7,8	1,5
Bizkaia	0,9	0,2	-2,0	0,5
Gipuzkoa	4,5	0,2	0,1	0,2
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,7	2,6	-2,2	0,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,3	-6,2	-6,0	-0,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,8	5,2	-1,2	0,5
Ekipo-ondasunak	0,2	-1,4	-2,8	0,7
Bitarteko ondasunak	5,2	6,7	1,3	-2,4
Energia	2,2	-5,1	-7,5	2,8

(1) 2010eko urtariletik irailera bitartean eman den urte arteko aldakuntza tasa, 2009ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua